

Prentsa oharra

Nota de prensa



DONOSTIAK POLLOEKO GUNE BAT GORDE DU ERLIJIO MUSULMANEKO EHORZKETAK EGITEKO

Donostiako Polloeko hilerriak musulmanen hilobietarako gune bat izango du.

Miguel Ángel Díez Hiri Mantentze Saileko zinegotziak adierazi duenez, “musulmanen beharrei erantzun ahal izateko, 400 metro koadroko eremu bat gorde da Polloen. Bertan, antzinako hobi komunak daude, erabiltzen ez direnak. 70 hilobi egingo dira, hobi bakoitzeko lau hilobiratze egiteko edukierarekin, guztira 280 hildako guztira.”

Donostiako Udalaren ekimen hau ez da bakarra Gipuzkoan, duela hilabete batzuetatik lurraldeko beste sei udalerrirekin batera ari baitira lanean. Ez da aurreikusten hileta-erritu islamiarrentzako esparrurik, ezta aparteko gasturik ere hiriko udalarentzat.

Euskadiko eta Estatuko beste udalerrri batzuetako udalerriek lurperatze horietarako espazioak badituzte ere, pandemiak premia hori bizkortu du Gipuzkoan, garai hartan ezinezkoa izan baitzen gure artean bizi zirenen gorpuak jatorrizko herrialdeetara itzultzea.